



Proiektuaren deskribapena:

Gu Idaira, Nahia eta Uxue gara eta Iduna enpresakoak gara. Motorraren munduan oinarritzen den enpresa gara eta ekitaldi ezberdinak sortzen ditugu, bezero guztientzako bai genero eta bai adin guztientzako. Rallyak, igoerak, Drift-batailak eta geldialdiak egiten ditugu.

Gehienbat afiziodunak diren pertsonentzat dira, hau da, kotxeak, igoerak, motorrak... eta abar gustatzen zaienez baina kontutan ere hartzen ditugu afiziodunak ez direnak hau da afiziodunekin etortzen direnak, adibidez, haurrak, gurasoak, mutil edo neskalagunak... Kontutan izan ohi dugu haiei agian ez zaizkiela gustatzen horrelako ekitaldiak baina hala ere horrelako pertsonak ondo pasatzea dugu helburu. Bestetik, motorrarekin ere zer ikusia daukaten produktu batzuk salduko ditugu: pegatinak, kamisetak, posterrak eta abar.

Sortutako ekitaldi horiei buruzko informazioa hainbat lekuetan ikusi ahal izango dute bezeroek eskuragarri eduki ahal izateko informazio guztia, adibidez gure webgunean, gmail-ean edo instagramean.

Gure enpresaren helburu nagusienak pobrezia desagertzea eta genero berdintasuna egotea da, horregatik erabaki dugu, guk irabazitako diruaren parte bat ONG batera eramatea. Berdintasunari dagokionez erabaki dugu neskak eta mutilak berdinduta etorri daitezkeela eta parte hartu ere bai, horregatik egin ditugu kamiseta eta jertse modelo ezberdinak.

